

Xipri Arbelbide

IDAZLEA ETA APAIZA

Sorginak baziren

Baionako Antzokian izan bertso saio ederrarekin bururatu zen sorgin-auzien mendeurrena iragan neguan. Antolatzaileen asmoa zen gezurrez zikindu lapurtar emazteen omena zuritzea. 500 bat erre zituztela entzuten da. Ez dakit norbait ohartzen den zenbat egur beharko zen 500 jenderen erretzeko: Senpereko oihan guztiak ez ziren aski izanen horretarako. Uste dut Pierre de Lancrek berak hemezortzi hil aipatzen dituen eta nola, heriotza gehiago eta haren ospea handiago izanen baitzen garai haietan, iduritzen zait berak eman datua dela sinesgarriena. Hemezortzi zigor heriotza, ez da guti! Horietan baziren bi apez. Gehienak emazteak, egia da, baina mundu horretan emazteak dira nagusi. Hartu *Horoscope* aldizkaria eta ohartuko zarete, *medium*, *voyante*, *sorcière luciferienne*, *theurgiste*, eta bestetan 10/9 baino gehiago emazteak direla.

Baina ez litezke gure gaurko begiekin ikusi behar duela lau mendeko gertakariak. Garai hartako munduan, denek sinesten zuten sorginetan. Denek sinesten zuten Kanadan ontziak urperatzen bazituen ekaitzak, norbaitek hemen bota zorte gaixtoaren ondorioz zela. Haur ttipi bat hiltzen bazen supituki, norbaiten begi gaixtoa edo begizkoaren ondorioz zela.

Baionako kolegioan sei zuzendari hil ziren bat bestearen ondotik, Etxauz apezpikuak erran zuen: “Norbaitek zorte gaixtoa bota du ikaste-



DANI BLANCO

txearen kontra”. Apezpikuaren sinestea horrelakoa badin bazen, nolaz ez jende xehearena?

Aspaldiko mendeetan sineste hori izan dute lur honetako jende guztiak. Eta gaur egun ere badira, hemen, Euskal Herrian, horretan dau-denak. Nihaurk ezagutzen dut, haurra ohakoa eramaki zuen aita. Auzoak haurrari begiratu zion irri polit batekin: “Zer haur pollita!”. Aita loriatua! Haurra gau hartan hil zen supituki. Aitarentzat ez da dudarik: auzoak zion begi gaixtoa bota, bezperan.

Ikusteko molde hori ez da oraino desagertua, eta nehork uste baino hedatuagoa da gure mundu posmodernoan. Duela lau mende, erran daiteke jende guztiena zela.

Sinesten duzularik gaitz guztiak, zenbaitek egiten dituztela, nor diren bilatuko duzu eta ongi gaztigatuak izatea nahiko duzu. Hori izan zen de Lancreren lana. Politika gizonak baliatu zirela horretaz beste helburu batzuk gogoan, ez da dudarik. Baina de Lancrek ez zuen ezer egiten ahalko sineste hori izan ez balitz hemen.

Boli Kostan ikusi dut “de Lancre” bat lan bera egiten, herri guztiak beren zorte gaixtoetarik askatzen, zorte gaixto horiek nork bota zituen erraten. Denek sinesten zuten eta “hobendunek” aitortzen, bate-re torturarik gabe, hemen esplikatzeari luzeegi litekeen arrazoiengatik.

Beraz bai, “sorginak” baziren Lapurdin bestetan bezala. Horrek ez du justifikatzen de Lancreren sadismoa. ■



Bai, ‘sorginak’ baziren

Lapurdin bestetan bezala.

Horrek ez du justifikatzen

de Lancreren sadismoa



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Lehiaketa. Torneo Lopez Ufarte Bidasoaldean. Kadeteak, hamalau urte

inguruko mutil oso kozkorrak. Parte-hartzaileen artean Kamerungo selekzioa, larunbatean ikusi nituenak jokoan. Urruñako eta Hendaiaiko Aberri Egunak erditik, astelehenean ikusi nituen berri-ro finalean, iaz bezala garaile irten zirenak. Biharamunean jakin dut Mallorkatik zetozela beste lehiaketa bat jokatu. Eta omen, handik bat gutxiagoz etorriak ziren, sobra ere jokalaria bat desagertua. Ez dut inon ere berria entzun ez eta irakurri. Eta nobela bateko gaia bailitzan, Irundik ere, garailetako batek alde egin

Futbol

omen duen kontua entzun dut, hara eta hona galdezka joan eta baieztatu ezin izan dudana. Inork ez dit ezez-

korik esan, baina auskalotze plantekin erantzun didate denek. Ikusi ditudan partidatan, futboletik ezin ogibidea atera eta hala ere pagotxaren baten ondotik itzulimtzulika dabilen hainbat espekulatuzailegai topatu dut harmailetan, gustuko jokalarien zenbakia ahotan kaieratzeko prest. Eta nik neure motzean ezin sinetsi nerabe bi horiek, hemengo laguntzarik gabe euren kasa taldetik alde egiteko erabakia hartu dutenik. Futbolari izateko gauza badira, ezagutuko ditugu. Bestela nekez, mahats biltzailtzan harmailarik ez dago. ■